

HERRI KONTSEILUA: INFORMAZIO ORRIA

ZER DA HERRI KONTSEILUA?

Herri Kontseiluak herritarrek osatutako lan taldeak dira, politika publikoak bultzatzeko, ebaluatzeko, monitorizatzeko eta betetzen dela zaintzeko balia daitezkeenak.

Herri Kontseilu hau Azkoitia Herrilab +700 Herri Plana sortzeko prozesuaren baitan garatuko den egitasmoa da. Hala, herritarrez osatutako lan talde batek Herri Planaren zirriborroa ezagutu, baloratu eta ekarpenak egingo ditu.

NOLA ERATU DA LAN TALDEA?

Lan taldea ausaz eratu da. Ausazko Taldea zozketa bidez eta irizpide zehatzen arabera hautatutako herritar talde anitz bat da, gai edo proiektu jakin baten inguruan informatu, hausnartu, eztabaidatu eta kontsentsuz erabakiak hartzeko ahalmena aitortzen zaiona. Herritar talde honen funtzioa izango da gai bat sakontasunean landu eta, ongizate komunaren ikuspegitik, aukera eta irtenbide egokienak zehaztea.

Kasu honetan, adinaren, generoaren eta bizilekuaren arabera egindako zozketa bitartez hautatu dira parte hartzera gonbidatutako herritarrak.

Parte-hartzea borondatezkoa denez, hautetsi batzuk ezezkoa emango dutela aurreikusten da. Horregatik, guztira 21 kidez osatutako lan taldea lortzeko, 231 herritar hautatu dira; irizpideen araberrako perfil bakoitzetik 11.

ZEIN IZANGO DA HERRI KONTSEILU HONEN EGITEKOA?

Taldearen eginkizuna izango da diagnostikoaren zein planaren proposamenak ezagutzea horretarako beharrezkoa informazioa jasoz, eta ondoren proposamenaren egokitasunaren gainean hausnartzea, kontsentsuzko proposamen bat zehaztera iristeko helburuarekin.

NOIZ EGIKARITUKO DA?

Herri Kontseilu hau hiru saiotan garatuko da. Lehenengo aurkezpen saio bat egingo da eta ondoren, lanerako bi saio. Aurkezpen saioa irailaren 26an izango da, lehenengo lan saioa urriaren 3an eta bigarren lan saioa urriaren 10ean.